



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
M. Izaskun Altxu Ariztegi

2018ko otsailaren 12an, 12:00ak direnean, Ohiz kanpoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. ITURENGO KALEKO ARGIEIEN BERRITZEA.

2017ko azaroaren 17ko eta 27ko Nafarroako Aldizkari Ofizialetan eman zen argitara 448/2017 Ebazpena, azaroaren 6koa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana. Ebazpen horretan onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean, Toki Programazioaren barrenean, argiteria publikoaren atalean sartutako inbertsioen behin betiko zerrenda eta, horrekin batean, urtez urteko banaketa. Finantzatzen ahal diren inbertsioen zerrendan dago Iturengo kaleko argien berritzea, 2018an egiteko.

Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean xedatutakoa betez, aho batez erabakitzen da:

1. Iturengo kaleko argien berritze proiektua onestea, Oscar Campion Mezquiriz eta Juan Jose Visus Fandos injineruek egina.

2. Inbertsioaren finantza plana onestea.

3. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administrazioako zuzendari nagusiari.

Eta bertzerik ezean, 12:30ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.